


JOSEBA AZKARRAGA



DIRUAK BEHAR
LUKE BIHOTZIK

PAMIELA
argentina

JUAN ZELAIA SARIA · 2004

JOSEBA AZKARRAGA DIRUAK BEHAR LUKE BIHOTZIK

Euskal Herriko kaleetan dugu eztabaida: Galdu ote du Arrasateko kooperatibismo globalizatuak bere arima? Arrazoi ekonomikoaren eta pentsamendu bakarraren biktima izan ote da? Ba ote du gaur enpresa eta gizar-tea eraldatzeko asmorik? Edo bere burua haztea beste helbururik ez duen egitasmo iparrik gabea ote? Bultzada etikoa eta izaera bihoztuna abandonatu ote ditu arrakastaren etorbidearen kale-kantoiaren batean?

Kooperatibismoaren kontraesanak areagotu dira aro globalean. Eta arriskutsuena zera da: jokabide etikoa-go baterako beharrezkoak diren kontzientzia oinarriak makaltzea, soro kulturala ahitzea. Behin erresistentzia horiek amilduta, ateak parez pare zabaltzen baitzaizkio eraginkortasuna besterik bilatzen ez duen ekintza ildoari.

Mendebaldeko kulturari antzeko bekatua egozten zaio: bitartekoetan perfekzioa eta helburuetan konfusioa. Horregatik, dibanean jarriko dugu modernitate kapitalista, testuinguru historiko zabalagoak pistak emango baitizkigu Arrasateko kooperatibismoaren patologia posibleaz.

Ondoren, Arrasateko kooperatibismoari eskatuko diogu etzan dadin, eta bere bihotz-barrunbeak haztatuko ditugu; bere iraganeko zentzu kolektiboak, gaurko ajeak eta biharko desafioak.